



SANTAMASETAKO ARTISAU AZOKA ANTOLATZEKO PROTOKOLOA



Arrasate 2012

SARRERA

Santamas Komisiñoko Artisau lantaldeak, azken urtean ikusitako arazo eta kezka direla medio, artisau ezberdinekin bilera bat egitea erabaki zuen, gai hauen inguruan hitz egiteko eta artisauek izan zitzaizketen zalantzak edota kezka argitzeko. Gaur egungo artisautzako lantaldeak, betidanik hartu izan diren erabakien gaineko kezka eta zergatiaz arduraturik, datozen urteetarako protokoloa zehaztea du helburu txosten honen bidez, beti ere, maiatzean artisauekin eginiko bileran aipatutakoak kontuan izanik.

Txosten honek dituen helburu garrantzitsuenen artean, Santamasetako artisau azokako artisautza lantaldearen egitekoa erraztea eta bertaratutakoei erakusketa ahalik eta erakargarrien egitea da, hala nola, kalitatezko artisautza produktuak eskaintzea eta azokan parte hartuko duten artisauei beren jardura bermatzea.

Santamasetako artisautza lantaldeak, Santamasetako artisau azokaren izaera, bilakaera, artisautza ulertzeko erak, etab. eztabaidatu ondoren, eta Arrasateko hainbat artisaurekin hitzegin ondoren, zenbait ondoriotara iritsi da, ondorengo ildo eta helburuak zehaztuz:

- 1.- Artisautza tradizionalaren erakuslehio izatea.
- 2.- Gaur egungo artisau langintzak erakustea.
- 3.- Arrasateko artisautzat erakuslehio izatea.
- 4.- Langintza horietatik bizi den jendeari lekutxo egitea.
- 5.- Ofizio barietate ahalik eta handiena eta zabalena bermatu edota erakustea.

Bildutako artisauei planteatutako gaiak ondorengoak izan ziren: nola ulertzen dute beraiek, artisauek, artisautza? Zer espero dute azoka batetik? Dieta kontuak, nola egiten da beste herri batzuetan? Zeintzuk dira irizpideak? Gaur egungo artisautza eta tradizionalaren arteko ezberdintasuna, etab.

Santamas Komisiñoko Artisau lantaldeak datozen urteetako artisau azoken antolaketa zehazturiko irizpideak jarraian datozenak dira, beti ere momentuko beharren arabera gerta daitezkeen adaketak albo batera utzi gabe.

1.- ERAKUSKETAREN KALITATEA BERMATZEA

Santamas eguneko artisau azokaren kalitatea bermatzeko, artisautz lantaldeak oso garrantzitsu ikusten du parte hatzaileak artisauek izatea eta kalitatezko produktuak eskaintzea. Artisautza, industrietatik kanpo eginiko produktuen ekoizpen gisa definitzen du artisautza lantaldeak, lehengaiak

salmentarako prest geratzen diren produktu bihurtzearen prozesua ez dena. Artisauak ekoizpenaren maila guztiak betetzen ditu, lehengaitik hasita eta sarri baita salmenta bera ere.

Santamasetako artisau azokan ez dira onartuko “birsaltzaileak”, aurrez eginda dauden produktuez osatutako produktu edo objektuak, ezta jatorri industrial sinpleko objektuak saltzea, non artisautza karga ez den nahikoa.

Artisautza erregistra, erregularizatutako profesionalen kolektiboa da; nahiz eta ez den beharrezkoa izango, azokan parte hartu nahi duten artisauei artisautza erregistroko zenbakia eskatuko zaie, antolatzaileek jakin dezaten alta emanda dauden edo ez, artisautzatik bizi diren edo ez. Eskaera egiteko formularioan adierazi beharko da.

2.- OFIZIOEN ARTEKO OREKA

Ahalik eta ofizio eta produktu eskaintza zabalena erakutsi ahal izateko, ofizioen arteko oreka bilatuko da, langintza berdineko postu kopuru asko egotea ekidinez, ikuslearentzat azoka anitza izan dadin.

Santamas azokako artisautza lantaldearentzat, azokaren helburu garrantzitsuenetako bat da langintza erakusketa, hau da, artisaua azokan jardunean egotea, eta ikusleek langintz bakoitzeko prozesua ikustea. Azokaren helburu nagusia ez da artisauak saltzea, ezta azokari errentagarritasuna ateratzea, saltzeko aukera baldin badute ere.

3.- ARTISAUEN IDENTIFIKAZIOA

Santamasetako artisau azokan produktu eta langintza ezberdinak egotean, postu bakoitza besteetatik bereztua egongo da, batetik besterako banaketa eginda. Postu bakoitzaren gainaldean, artisauaren identifikazioa egongo delarik, hala nola, artisauaren izena, langintza, eta herria.

4.- MONOGRAFIKOA

Santamasetako artisau azokari indar gehiago eman nahian, eta urtero erakutsi ezin diren produktu eta langintzai lekutxo egiteko, 2011. urtean leen aldiz monografiko bat egin zen. Artisautza lantaldearen asmoa monografiko honekin urtero jarraitzea da, urtetik urtera gaia aldatuz eta ikuslearentzat erakargarria izan daitekeen langintza bat erakutsiz.

5.- DIETAK

Dieta kontzeptuari dagokionez, azken urteetan jarraitutako irizpidea artisau guztiei dieta kopuru berdina ordaintzea izan da. Maiatzean artisauekin izandako bileran aipatutakoak aztertu eta eztabaidatu ondoren, artisautza lantaldeak erabaki du, datozen urteei begira jarraituko duen irizpidea, artisauei emango zaien diru kopurua garraio eta otordu gastuengatiko dieta izatea.

6.- ARRASATEKOAK

Santamasetako artisau azokaren helburuetako bat Arrasateko artisauen erakuslehio izatea den heinean, bertakoen langintza eta produktuei emango zaie lehentasuna, beti ere kontuan izanda beste helburuetako bat aniztasuna dela, eta ahalik eta langintza gehien erakusteko asmoarekin antolaturiko azoka dela.

Artisautzako lantaldea saiatuko de Arrasateko artisauei lekua egiten azokan, azokaren aniztasuna kolokan jarri gabe, eta bi helburu hauen arteko oreka bilatzen saiatuz.

7.- BALORAZIOA

Santamasetako artisau azokaren jarraipen egokiago bat egiteko eta ondorengo urteetarako hobetu ahal izateko, antolatzaileek web orrian azokaren balorazioa egiteko formulario bat prestatuko dute (baliteke lehenengo urtean artisau guztiei idatziz emtea azokaren bukaeran)

Baloraziorako puntu garrantzitsuenak ondorengoak dira:

- Zer iritzi duzu azokari buruz? Lekua, izandako baliabideak, bertaratutako jendea...
- Zer aldatuko zenuke? Zertan hobetu daiteke?
- Bertan egon beharko ez litzatekeen posturen bat badago? Zergatik?
- Iradokizunak

Santamas Komisiñoko Artisautza lantaldeak espero du irizpide hauek artisau azokaren antolakuntza on bat eta garapen egokia izateko balio izatea, eta azoken, artisau parte hartzaileen eta ikusleen onuran izatea.